

Denon artean

Nire herriko ibai

Konturatzten bazara, herri eta hiri guztietan ibai, iturri edo iturbururen bat dagoela ikusiko duzu. Zergatik ote? Ura funtsezkoa da eta izan da bizitzarako. Pentsatzen hasita, esnatzen garenetik berriro oheratzen garen arte, geure jarduera ia guztiak gauzatzeko ura behar dugu.

Ekintza

Helburuak:

- "Ibai" kontzeptua definitu eta ezagutzea, "konplexutasun" kontzeptua erabiltzeaz batera.
- Izakien eta ingurunearen arteko erlazioen ondorioez gogoeta egitea.

Landutako gaitasunak

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura.
- Ikasten ikastea.
- Gizartea eta herritartasuna.

Ibaia honako hau da:

Orain, bateratu emandako definizio guztiak. Ea definizio zuzen bakarra egiteko gai zareten.

Bada ibai edo errekarik zure herri edo hirian? Nola du izena? Zer flora eta fauna ezagutzen duzu ibai horretan? (Haltzak, sahatsak, hurritzak...; ahateak, amuarrainak, igelak, burrunziak...). Erabilerarik ematen zaio edo eman zaio ibaiari? (Arrantza, aisia, industria, garraioa eta abar). Zein? Zalantzarik gabe, beste batzuk ezagutzen dituzu. Saiatu ezagutzen dituzun datuak taula honetan adierazten:

Ibaiaren edo errekararen izena	Hiria edo herria	Erabilerak	Ezagutzen duzun flora eta fauna

Zer da ibai bat?

Hiztegian edo Interneten kontsultatu eta irakur dezakezu: ibai ur korronte etengabea da... Zorionez, irakurtzen jarraitzen baduzu, ikusiko duzu gauza gehiago daudela: animaliak, landareak, zuhaitzak... Identifika itzazu eta saia zaitzez ibaiaren definizioa ematen, kontzeptu horiek guztiak aintzat hartuta.

Gure ibaiak

Galdetu ikastetxean, etxean eta kalean. Lan hau egiteko irteera bat egin dezakezue.

Gure ibaien egoera denboran zehar

Nola daude kontserbatuta ikusi dituzuen ibaiak? Garbi daude? Hondakinik ikusten da? Ba al du zerkusirik ibaiaren egoerak lehen ikusi dituzuen elementu biziak (ibaiertzeko florarekin, ibaiaren barruko eta kanpoko faunarekin...)?

Ibai horiek nahiko ondo kontserbatuta daude, seguru. Galdetu zeure familiari nola zeuden duela 40 edo 50 urte edo lehenago. Nola zeuden? Zergatik zeuden horrela? Zergatik gertatu dira aldaketak horiek?

Zalantzarik gabe, arrazoi bat baino gehiago dago (ingurumen-kontzientzia handiagoa enpresetan eta, oro har, gizartean, industria-jardueraren eragina, ura arazteko baldintza hobeketa eta abar).

Saiatu hori guztia ondorengo taulan adierazten:

Ibaiaren edo errekararen izena	Nola zegoen duela zenbait urte	Nola dago orain	Zergatik gertatu dira aldaketak

Antolatzen da zure herrian edo hirian ibaiaren inguruko jarduerarik, hau da, ibilaldi, bisitaldi, garbiketa, arrantza-txapelketa edo antzekorik? Komentatu ekimen horiek ikaskideekin. Halako jarduerak antolatzeko beharrik ikusten duzue?

Ezagutzen duzu IBAIALDE kanpaina? Ez baduzu ezagutzen, galdetu zertan datzan. Zure ikastetxeak parte hartu al du? Galdetu irakasleei.